



## 1966 | GAUR KONSTELAZIOAK | 2016

Gaur taldea eta Barandiaran Galeria | Kairós garaikidea  
Grupo Gaur y Galería Barandiaran | Kairós contemporáneo



B. Ochoa

**GAUR** BASTERRETxea | ZUMETA | BALERDI | MENDIBURU  
AMABLE | OTEIZA | SISTIAGA | CHILLIDA

Kairós

BADIOLA | FAJFRIC | GOLDSCHMIED & CHIARI |  
JAIO + VAN GORKUM | PSJM | ORTIZ | SALA | VIETES

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

2016-1-23 / 2016-5-15 SAN TELMO MUSEOA

#GaurKonstelazioak

ANTOLATZAILIAK / ORGANIZAN:



San Telmo Museoa



DSS2016.EU

donostiakultura.com



Donostia Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

ERAKUNDE BABESLEAK / SOCIOS INSTITUCIONALES:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euzko Legebiltzariaren  
Gobernua Vasco

BABESTEN DU / CON EL APOYO DE:



kutxa  
FUNDAZIOA

PATRONO PRIBATUAK / PATRONOS PRIVADOS:



eitb

EL DIARIO VASCO



ALTUNA Y URIA S.A.  
Compañía

ENPRESA ONGILEAK / EMPRESAS BENEFICIAS:



SEI2

berria

naiz:



GARA



Donostia Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



Donostia Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

## Gaur Taldearen 50. urteurrena, Barandiaran Galeria eta egungo artea 1966 | GAUR KONSTELAZIOAK | 2016 erakusketan

*Donostia 2016 Fundazioak eta San Telmo Museoa antolatutako erakusketa urtarrilaren 23tik maiatzaren 15era izango da ikusgai museoan. Fernando Golvano komisario duela, erakusketak 50 urtez banatutako bi testuinguru artistiko erakusten ditu: Gaur mugimendua eta Kairós garaikidea. Honekin batera, Dionisio Barandiaran mezenasaren galeria -bertan aurkeztu zuten Gaur Taldea eta han egin zuten bere lehen erakusketa- eta bere figura ere gogoratuko dira.*

*1966 | GAUR KONSTELAZIOAK | 2016 erakusketaren irekiera Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren inagurazio-ekitaldien programazioaren barruan kokatzen da.*

**Amable Arias, Rafael Ruiz Balerdi, Néstor Basterretxea, Eduardo Chillida, Remigio Mendiburu, Jorge Oteiza, José Antonio Sistiaga eta José Luis Zumeta** artistek osatzen dute euskal artearen konstelazio garrantzitsu eta berritzaileena. Hirurogeiko hamarkadaren erdialdean, diktadura frankista zela eta, ez zen erraza kultura- eta politika-sorkuntzari bide ematea. Hori zela eta, artista horiek guztiak elkartu egin ziren, Gaur Taldea sortzeko, eta, 1966an, beren burua jendaurrean aurkeztu zuten, erakusketa eta manifestu baten bidez, Barandiaran galerian (Donostia). Berrogeita hamar urte igaro dira poetika eta arte-hautaketa anitzeko hainbat artista elkartu zituen gertakari kultural eta disidente hartatik. Artearen oinordetza moderno bat berreskuratzeko gogoia ere bazegoen, Euskal Eskola bat; izan ere, Gerra Zibilak eta diktadurak bertan behera utzi zuten egitismo hori. Hori zela eta, beste talde batzuk ere sortu ziren: Emen (Bizkaia), Orain (Araba), Danok (Nafarroa) eta Baita (Iparraldea). Nabaria zen abangoardia artistikorako zegoen gogoia, eta Oteiza eta Chillida izan ziren mugimendu horren ordezkari ezagunenak nazioartean. Gaur Taldean bertan eta talde



desberdinen artean desadostasunak egon ziren artea ulertzeko moduari eta gizartean eta politikan zituen eraginei zegokienez. Ondorioz, azkenean taldeko abentura hau bertan behera geratu zen eta galeria itxi egin zen. Alabaina, garai hartako obrak baditugu, eta gure irudimena eta sentikortasuna poetikoki interpelatzeko jarraitzen dute oraindik ere.

Erakusketa honen harira, omenaldi bat egin nahi diogu **Dionisio Barandiarani** (Ataun, 1927 – Donostia, 1979), bera izan baitzen, hain zuzen ere, arte konposatuko hainbat erakusketa barne hartu zituen Barandiaran galeriaren mezenasa (1965-1967). Galeria honek gutxi iraun bazuen ere, protagonismo handia izan zuen Euskal Herriko artearen eta kulturaren berrikuntzan: Gaur Taldearen egoitza izan zen, baita horrekin lotutako beste zenbait talderena ere; esaterako, Ez Dok Amairu (musika herrikoia), Argia (dantza) eta Jarrai (antzerkia). Horrez gain, arte desberdinei buruzko erakusketak, entzunaldiak eta mahai-inguruak antolatu zituen, baita beste hainbat ekitaldi ere, garai hartan nagusi zen zentsuraren mugak saihestuz.

*Kairósen*, Gaur Taldean parte hartu zuten artistak baino geroagoko belaunaldietako eta errealitate nazional desberdinetako zortzi artistak hartzen dute parte: **Txomin Badiola, Bojan Fajfric, Goldschmied & Chiari, Iratxe Jaio + Klaas van Gorkum, Eugenio Ortiz, PSJM, Avelino Sala eta Azucena Vieites**. Horien obrek elkarriketak ezartzen dituzte elkarren artean eta, aldi berean, Gaur Taldeko artistek hirurogeiko hamarkadako testuinguruan eginiko obrekin.

1966 | 2016: bi testuinguru soziohistoriko, artearen bi konstelazio, pentsa eta esperimenta daitekeenaren figura berriak proposatzen dituztenak.

## \*BIOGRAFIA LABURRAK

### Dionisio Barandiaran

(Ataun, 1927 – Donostia, 1979)

Ataunen jaiotakoa, gerra zibila hasi zenean Donostiako Easo plazara joan zen bizitzera senitarteko batzuen etxera. Gaztetan kafetegi bateko lana eta Arte eta Lanbide Eskolako ikasketak uztartu behar izan zituen. Beranduago, ostalaritzan eta eraikuntzan aritu zen lanean. Zarautzen Euromar Hotela eraiki zuen. Bertan, Euskadin aitzindari izango zen ostalaritza-eskola zabaldu zuen. Euromarren hainbat kultur ekitaldi burutu ziren. Ekitaldi horietako batean Sistiaga eta Amable ezagutu zituen, eta beste galeria bat zabaltzeko ideia sortu zen.

Barandiaran, kristau sinesmen sakonekoa eta abertzaletasunarekin konprometitu, enpresa jardueretan ekintzaile haundia izan zen eta kulturaren esparruan, galeriaz gain, zinema bat zabaldu zuen. Ezin izan zuen bere memoriak idazten amaitu, 52 urte zituela hil baitzen. 2009an *Azarolako Dunixi* izenburupean argitaratu ziren.

Dionisio Barandiaranen figurak esker-on publikoa merezi du, bere izena eraman zuen eta Oteizak arte konposatuko erakusketen ekoiztetxea deitu zuen galeria bultzatzeko egin zuen apustu eskuzabal eta ausartagatik. Ibilbide laburra izan zuen arren (1965eko azarotik 1967ko abendura arte), galeria hau arteen arteko topagunea izan zen. Horretaz gain, arteari, poesiari eta musikari lotutako abangoardiako kultura baten, eta askatasunak eta euskara debekatuta zeuden testuinguru frankista batean herri-kultura euskaltzalearen beste adierazpen batzuen arteko topagunea ere izan zen.

### Barandiaran galeria

1965-1967

Arte konposatuko erakusketen produktorea.

Donostiako Bengoetxea 4an kokatua, galeria hau Gaur Taldearen, eta Ez Dok Amairu (musika herrikoia), Argia (dantza) eta Jarrai (antzerkia) bezalako beste talde batzuen egoitza izan zen. Musika garaikideko eta poesiako hitzaldiak, entzunaldiak eta erakusketak, eta garai hartan indarrean zegoen zentsuraren mugak ekidin behar zituzten beste ekitaldi batzuk programatu zituen. Julio Campal poeta esperimentalak izan zen bertako lehen zuzendaria. Aurrerago Santi Diazek ordezkatu zuen.



Gaur Taldea erakusketa eta katalogo batekin aurkeztu zen. Bertan, euren sortzeko askatasuna eta proiektuak defendatzeko artisten bateratzea sustatzen zuen adierazpen bat jasotzen zen. Finantzatzeko zailtasunak, talde elkartu horien etorkizunaren aurrean sortutako diferentziak eta jarduerak beste herri, ikastegi eta lantokitara zabaltzeak diferentziak eta eztabaidak eragin zituzten. Horretaz gain, Francoren aurkako militantzietara eta erakundetara atxikitako pertsonen artean sortu ziren liskarrek proiektu berritzaile horren amaiera ekarri zuten.

## Amable Arias

Bembibre, 1927 - Donostia, 1984

Marxismo kritikoa gogoko zuen artista eta poeta honek 1969an hau idatzi zuen: «Artea, beraz, zerbaiten alde eta zerbaiten aurka dago. Errealista txikienean ere bada aukeratzeko zerbait. Munduan aukeratzeko modu bat. (...) Artea, beraz, zientzia, filosofia eta teoria kritikoa bezalakoa da. Material diferenteekin gauza bera bilatzen du». Heterodoxia artistikoa landu zuen unibertso bisual eta poetiko baten bitartez, mundu errearen eta irudimenekoaren artean ibiltzeko. Ironia eta satira erabiliz munduarekin eta desioekin auzitan jarduteko baliabide gisa.

## Rafael Ruiz Balardi

Donostia, 1934 - Altea, 1992

1956an Parisera egindako bidaiaren ondoren bere pintura informalismo abstrakturantz bideratzen da, aldi berean modu konpultsiboan eta arrazionalen errepikatzen duen keinu bidezko ekintza baten bitartez. Honako hau idatzi zuen: «errepikapena bizitzen ikasi behar da», eta esan daiteke keinu horrek forma berriak sortzen dituela, marrazketaren eta kolorearen erabilera liluragarriaren bitartez, esperientzia errealeatik edo irudimenetik gogoratutako irudimeneko paisaiak osatzen dituzten forma organiko eta geologikotan gauzatzen da. 1977an bere argizari-serie bikainak hasi zituen.

## Nestor Basterretxea

Bermeo, 1924- Hondarribia, 2014

Sormen-modalitate guztiak landu zituen: marrazkigintza, pintura, irudikapena, collageak, erliebeak, eskulturak, diseinu grafikoa eta industrialak, zinema eta idazketa. Arrazionalismo abstraktuaren abangoardia modernoarekiko hasiera erakutsitako interesetik, hirurogeiko hamarkadaren erdialdean informalismo espresionistari lotuagoak zeuden beste aukeraketa artistiko batzuk gehitu zituen. Poetika horrek forma hartu zuen *Cosmogónica Vasca* (1972-1977)

bezalako eskultura-serietan. Bertan, nortasun garaikide baterako iruditeria mitiko eta antzinakoa islatzen dira.

## Eduardo Chillida

Hernani, 1924- Donostia, 2002

1951n bere burdinazko eskultura-lanak hasi zituen, *Yunque de sueños* izeneko seriekoak bezalakoak. Zura, terrakota, alabastro, zeramika, hormigoia, altzairua eta papera bezalako beste material batzuek ere itxura plastikoak eta poetikoak hartzen dituzte antzinako eta gaur egungo elementuen inbrikatze misteriosuan. Bere eskulturak edo collageak topaguneak dira. 1958an Veneziako Bienalaren Eskulturako Nazioarteko Sari Nagusia eskuratu zuen. Hainbat modalitate grafikotan argitaratutako bere artista-liburuekin batera poeta, idazle eta filosofo garrantzitsuen testuak aurkituko ditugu.

## Remigio Mendiburu

Hondarribia, 1931-1992

1966an Gaur Taldearekin erakusketak egin zituen, eta ondoren, Veneziako Bienalean hartu zuen parte. Herri-imaginarioari beste forma bat emateko asmoz, eraikuntza abstraktuak egitea erabaki zuen ukitu informalista emanaz. Zura erabiltzea lehenetsi zuen eta eraikuntza-tradizioa berritu zuen *Argi hiru zubi* (1968-1977) lanean bezala hoditxoek bidez lotutako piezak mihizatuta. Brontzea eta alabastroa ere erabili zituen, eta hirurogeita hamarreko amaiera aldera hormigoia bezalako materialen erabilerak arakatu zituen. Marrazkiaren bitartez bere eskulturetan erabiliko zituen matrizeak izango ziren forma organikoak marratu zituen.

## Jorge Oteiza

Orio 1908 - Alzuza 2003

Arteak sentsibilitatea hezteko funtzioa dauka eta giza existentziaren izaera tragikoarekin auzitan jarduten laguntzen du. Postulatu honetatik abiatuta, Oteizak sorkuntza artistiko, poetiko eta intelektual poliedrikoa sustatzen du, eskulturatik abiatuta poesiara eta kultur ekintzara zabaltzen dena. Sao Pauloko IV. Bienalean eskulturako Nazioarteko Saria eskuratu zuen *Propósito experimental* (1956-57) lanaren, eta espiritualtasun liberatu baterako hutsune konklusibo eta harkorra laburbiltzen duten beste azken kutxa metafisikoen ondoren, 1959an arte-praktikak bazterrean utzi zituen, eta poesia eta entseguak idazten eta arkitekturako proiektuetan parte hartzen jardun zuen.



## Jose Antonio Sistiaga

Donostia, 1932

Parisen (1955-1961) bizitzen egon zenean *nuagisme* bezala ezagutzen zen pinturan eta zen baretasunean interesatu zen. Sistiagaren pintura informalista eta abstraktua ekintza paradoxiko batetik sortu zen, trazu espontaneo eta kalkulatu bat lotzen baitzituen. Esan daiteke musika-oihartzunak, edo naturaren, gauaren eta kosmosaren kutsu bisualak gogoratzen dituztela. Filmeuskarran pinturaren esperimentazioan aitzindari izan zen, eta *Ere erera baleibu izik subua aruaren...*(1968-70) bere lehen lana izan zen. Bere pinturetan laburtutako ekintza dinamikoa keinu bidezko formen eta forma kromatikoen aldi bateko narrazio bihurtu zen.

## Jose Luis Zumeta

Usurbil, 1939

Gaur taldeko gazteena zen artista honek ere 1959an Parisera egindako bidaia batean arte modernoaren joerak ezagutzeko aukera izan zuen. Bere pinturan aukeraketa formal diferentek atzeman daitezke, abstrakzio espresionistatik (*art brut* izenekoarekin antza duena) figurazio espresionistara doazenak, edo beste une batzuetan pop kutsua duten formak erabiltzen ditu. Hirurogeiko hamarkadaren amaiera aldera, euskarri eta erliebe diferenteren gainean muralak egin zituen, adibidez erakusketa honetan ikus daitekeenetako bat. Eskulturaren forma zuten pintura hedatuak eta lan mugikariak ere egin zituen. Koloreak garrantzi berezia du bere konposizioetan.

## PSJM

Berlin, 2003

Pablo San Jose (Mieres, 1969) eta Cynthia Viera (Las Palmas, 1973)

Amaierako artearen marka komertzial baten moduan dihardu PSJMak. Merkatuaren aurrean artelanari, kontsumitzailearekin komunikazioari, haren funtzio estetikoari eta kapitalismo ikusgarri nagusiaren gaur egungo garapenean sortzen diren paradoxei buruzko gaiak planteatzen ditu. "Historia Naturala" hainbat obrek osatzen dute. Bertan artistek, forma eta teknika berriak erabiliz, aurreko serie batzuetan jada aurreratu zuten lengoia propioa garatzen dute: datu estatistikoei erantzuten dieten konposizio abstraktuak eta, kasu honetan, erregai fosilen produkzio eta kontsumo masiboak larriki kaltetu duen gure ekosistemaren errealitatea islatzen dute.

## Avelino Sala

Gijón, 1972

Artista, komisarioa eta editorea (Sublime aldizkaria) da. Bartzelonan bizi da eta bertan egiten du lan. Bere jarduera artistikoaren bitartez imajinario soziala arakutzen saiatzen da eta artearen dimentsio kritikoa lehenesten du, gaur egungo errealitatearen aurrean iritzia sorrarazteko. *El arconte* (2015) lanean boterea (arconteren irudi greziarraren bidez irudikatua), zentsura, hezkuntza publikoaren defentsa eta *Sapere Aude!* (ausartu zaitez ikasten!) latinezko esaeraren bidez ilustratutako proiektua berreskuratzea bezalako gaiak lotzen ditu. *La tortuga* (2015) proiektuaren ezkutuei buruzko bere seriean ironia erabiltzen du errealitateari eta irudimenari buruz memoria batek ezar dezakeen ekintza artistikoaren erresistentzia-papera azpimarratzeko.

## Txomin Badiola

Bilbo, 1957

Arteak eraiki ditzake bere gorpuzkerari eta zentzuari buruzko autogogoeta bat erakusten duten hainbat objektu, irudi eta testu osatzen duten forma konplexuak. Era horretan artearen edo alderdi sozialaren historian bertan arakutzen du. Eraikuntza formala da erabakigarria, finkatutako zentzuarekiko haren botere negatiboa aukeraketa kritikoen (etikoak, estetikoak eta politikoak) kairós batean erakusten da. Erakusketa honetarako egindako MITOLOGÍAS. ATZO / HAN / ONDOREN / BATZUK bere lanean Gaur Taldearen memoriarekin, bere esanahi historikoekin, kulturekin eta EAE taldearena bezalako beranduagoko beste ekimen artistikotan konstelazio mitiko hori jasotzearekin elkarrizketa bat ezartzen du.

## Eugenio Ortiz

Hondarribia, 1956

Pinturaren eta eskulturako objektuaren artean, bere lanek forma konstruktiboa eta sinbolikoa antolatzen dute, testuen arteko hainbat loturarekin. Plaza Hamelin (2012) lanak gure bizitzaren ibilbidea bideratuko duten irudien eta espazioen beharra plastikoki planteatzen du arazo moduan. *Ceremonia* (2015) lanean Mallarmé-ren memoria bat berregiten du, baita absolutu baten bilaketa irrikatzen zuen eta, aldi berean, ezinezkotasun horri buruz hausnartzen zuen ikerketa poetikoa ere. Horrela, idazketaren eginkizunera mugatutako eta edozein existentzian dagoen zoriarekin auzitan ibili ahal izango den saiakera poetikoa geratzen da. Bere pieza/instalazioaren bitartez, Ortizek Mallarmé eta beste artista batzuk (Duchamp), poetak





(Celan) edo pentsalariak (Badiou edo Ranciére) oroitzen dizkigu.

## Azucena Vieites

Hernani, 1967

Madrilen bizi da eta bertan egiten du lan. Erreakzioa-Reacción kolektiboan parte hartzen du, kutsu feminista duen sormen artistiko eta kulturalako espazioan. Marrazketa, collagea, grafika edo instalazioa bezalako baliabideen bitartez, forma kritiko bat adierazten uzten dioten fanzine eta argitalpenen testuarterko jabetzeen gailua erabiltzen du. *New Feminism* (2008) seriean integratutako bere proposamenetatik erakusketa honetan aurkezten dituen instalazioetara – *Fundido encadenado-Break You Nice* (2012) eta *Producciones low-fi* (2015)–, Vieites immigrazioaz, enpleguaren egonkortasun-ezaz, indarkeria matxistaz, sexualitatez edo gorputz-errealitate berriez arduratzen da. Irudi dislokatuek edo zatikatuek diskurtso totalizatzaileak gezurtatuko lituzkete.

## Iratxe Jaio + Klaas van Gorkum


Markina-Xemein, 1976 | Delf, 1975

2001ean hasi ziren elkarrekin lanean. Rotterdamen bizi dira eta bertan egiten dute lan. Euren iritziz praktika artistikoa modalitate zuhur eta politiko bezala ulertu behar da. Egi arkeologiko baten estatutu problematikoari buruz –Iruña Veleiako aztarnategi arkeologikoan aurkitutako arrastoen eztabaidari buruzkoa bezala–, edo artearen historian jabetzaren orijinalaren, autoretzaren eta poetiken gaiaren inguruko kereilei buruz, kultura eta prozesuan jartzeko azken forma hartzen duen ekintza zuhurra eta ikertzailea garatzen dute. Artea teorizatzen den praktika bat bezala ulertzen dute, komunaren politika bat eta antropologia bat berritzen duen memoria kritikoa bezala.

## Bojan Fajfric

Belgrad, 1976

Amsterdamen bizi da eta bertan egiten du lan. Generoen konbentzioen arteko mugak desegiten dituzten filmetako lengoaiak eta irudien potentzia formalak erabiltzen ditu, zentzuen eta zentzugabekeriaren sorta bat mugiarazteko. Aurkezten dituen bi instalazioetan bitxikeria ironiko bat ikus daiteke: Bas Jan Ader-en –artista holandar ezaguna– lan baten remakean, zein *The Cause of Death* (2015) filmean. Konposizio-egitura, formaren lana eta absurdoaren poetikari lotutako distantzia ironikoa eta parodikoa, fikzio eta esanahi berriak adierazten dituen



egite dokumental batean gainjartzen dira.

## Goldschmied & Chiari

Sara Goldschmied (Arzignano, 1975) eta Eleonora Chiari (Roma, 1971)

Milan eta Erroma artean bizi dira eta han egiten dute lan. Arte garaikidearen dimentsio kritikoa eguneratzeko argazkiz, collagez, bideoz, objektuz edo instalazioz baliatzen dira. Arte garaikideak, bere autonomian oinarrituta, finkatuta dauden imajinario sozialak asalatu edo inpugnatu egiten ditu. Adibidez, *La Democratie est Illusion* (2014) lanean, autoezarpen esplizituaren eta automugatzearen erregimen hori, elite politiko eta ekonomikoen eskutan, ilusioen eta marketineko joko batean nola bilaka daitekeen aztertzen dute. Artearen erregimen estetikoak ahalbidetzen duen distantzia ironikoak bere helburu propagandista, morala edo sakratua indargabetu dezake. Horretan oinarrituta, artista hauek, gogarte kritikoa eta enigma estetikoak eguneratzeari utzi gabe, publiko desberdinekin elkarrizketa bultzatzen ahalegintzen dira.



## \*GAUR ALDI BEREAN

San Telmo Museoa ikus daitekeenaz gain, Gaur Taldeari eta bere artistei buruzko erakusketak programatu dituzte beste egoitza batzuetan.

Kutxa Kultur Artegunea (Tabakalera): *Historia partekatuak. XX mendea Kutxa Bilduman*

Urte osoan zehar

[www.kutxakulturartegunea.eus](http://www.kutxakulturartegunea.eus)

Okendo Kultur Etxea: *Basterretxea, Sistiaga, Zumeta. Azken urteetako obra*

2016-1-23 // 2016-4-2

[www.donostiakultura.com](http://www.donostiakultura.com)

Kur Art Gallery: *Amable, Mendiburu. Azken urteetako obra*

2016-1-23 // 2016-4-25

[www.kurgallery.com](http://www.kurgallery.com)

Altxerri Galeria: *Balerdi. Azken urteetako obra*

2016-1-23 // 2016-3-21

[www.altxerri.eu](http://www.altxerri.eu)

Bilboko Arte Ederren Museoa: *Amable, Basterretxea, Eduardo Chillida, Mendiburu, Oteiza, Sistiaga, Zumeta. Balerdi (Klarionak)*

2016-1-26 // 2016-4-25

[www.museobilbao.com](http://www.museobilbao.com)

Tabakalera: "Euskal ondarea pantailara" zikloaren baitan, Sistiagaren *Ere erera baleibu Izik subua aruaren...* (1968-70) proiektzioa (75 min). Euskadiko Filmategiaren eskutik. 35mm-ko filma bertan marraztua izan zen. Artistak berak aurkeztuko du proiektzioa.

Martxoak 10, osteguna. 19:00 / 3,5 €

## \*ERAKUSKETAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK

### ATE IREKIAK

Urtarrilak 23, larunbata, 20:00etatik 23:00etara

Donostia 2016ren inaugurazio ekitaldien artean.

Egun horretan museoak ohiko ordutegia zabalduko du eta hiru ordu horietan zehar *1966 | Gaur konstelazioak* | 2016 erakusketa doan ikusteko aukera egongo da.

### FAMILIENTZAKO TAILERRAK

**Edu López** artistarekin zuzenean lan egiteko aukera.

#### *Bukaera gabeko metrajea*

Larunbata, urtarrilak 30

Balerdiren eta Sistiagaren film-esperimentuak hartzen ditu oinarritzat tailer honek. Parte-hartzaile guztien artean pelikula bat egingo da.

#### *Txakur urdina*

Larunbata, otsailak 13

70eko hamarkadako Amable Arias-en kontakizun labur batean oinarrituta, parte-hartzaileek norbanakoan eta taldean osatutako kontakizuna egingo dute, asmatutako pertsonaiekin.

#### *Klarion-laborategia*

Larunbata, otsailak 20

Jorge Oteizak urte luzeetan zehar egindako lanean oinarrituta.

17:00 / Elebitan / 5 euro familiako.

### GAZTEENTZAKO TAILERRAK

Publiko gazteari zuzendutako kamiseta pertsonalizatuen tailerra Blami-rekin.

Informazio gehiago: [www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com)

### ESKOLENTZAKO TAILERRAK

Edu López eta Usoa Zumeta artistekin zuzenean lan egiteko aukera izango dute Lehen Hezkuntzako eskola taldeek:

*Klarion-laborategia.*

*Bukaera gabeko metrajea.*

*Txakur urdina.*

*Serigrafia tailerra.*



Euskaraz (serigrafia) edo elebitan (gainontzekoak) egingo dira tailerrak.  
Aurrez hitzordua hartuta: [stm\\_erreserbak@donostia.eus](mailto:stm_erreserbak@donostia.eus), 943-481561 (asteartetik ostiralera 10:00-13:00).

## JARDUNALDIAK

*Gaur taldea. Memoria eta gertaera.*  
Apirilak 20 - 21. San Telmo Museoa.  
Informazio gehiago: [www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com).

## MINTEGIA

*Kairós. Testuinguru kritikoak, artea eta idazketa.*  
Apirilak 26-27. San Telmo Museoa.  
Informazio gehiago: [www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com)

## BISITA GIDATUAK

Urtarrilak 23, larunbata, 11:00  
*1966 | Gaur konstelazioak | 2016* Donostiako erakusketetara bisita, Fernando Golvanok gidatua. Bisita gidatua Okendo Kultur Etxen hasiko da (Basterretxea, Sistiaga eta Zumetaren lanak daude ikusgai), ondoren Kur Art Galleryra joango da (Mendiburu eta Amable Ariasen lanak daude ikusgai) eta Altxerri galerian amaituko da (Balerdiren lanak daude ikusgai).  
Doan.

Urtarrilaren 30etik aurrera  
Erakusketara bisita gidatuak larunbatetan.  
12:30 euskaraz / 17:30 gazteleraz  
3 euro (sarrera ez dago barne)  
Ez da beharrezkoa izen-ematea.

Martxoak 12, larunbata.  
Bilboko Arte Ederren Museora eta Chillida-Lekura bisita.  
Doan. Edukiera mugatua.  
Euskara eta gaztelania.  
Izena emateko: [gaurkonstelazioak@dss2016.eu](mailto:gaurkonstelazioak@dss2016.eu) / 943 483344.

Martxoak 19, larunbata.  
Jorge Oteiza Fundazio Museora bisita.  
Doan. Edukiera mugatua.  
Euskara eta gaztelania.  
Izena emateko: [gaurkonstelazioak@dss2016.eu](mailto:gaurkonstelazioak@dss2016.eu) / 943 483344.



## \*INFORMAZIO OROKORRA

### San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia

Tlf.: 943-481580

[www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com) | [santelmo@donostia.eus](mailto:santelmo@donostia.eus)

@santelmomuseo | #GaurKonstelazioak

### Ordutegia

Asteartetik igandera: 10:00 - 20:00 | Astelehenetan itxita, jaiegunetan zabalik.

### Prezioak

Sarrera orokorra 6€

Murriztua Reducida 3€ : Familia ugariak, 65 urtetik gorakoak, 10 lagunetik gorako taldeak

Gaztetxartela, ikasle txartela.

Dohainik: Bazkideak, 18 urtetik beherakoak, ICOM, irakasle txartela, langabetu txartela.

Astearteetan museorako sarrera doakoa da

## El 50º aniversario del Grupo Gaur, la Galería Barandiaran y el arte contemporáneo en la exposición 1966 | GAUR KONSTELAZIOAK | 2016

*La exposición organizada por la Fundación San Sebastián 2016 y el Museo San Telmo se podrá visitar del 23 de enero al 15 de mayo. Con Fernando Golvano como comisario, la exposición recoge dos contextos artísticos separados por 50 años: el movimiento Gaur y el Kairós contemporáneo. Asimismo, se rendirá un homenaje a la figura y galería de Dionisio Barandiaran -lugar donde se presentó el Grupo Gaur y se realizó la primera exposición-.*

*La apertura de la exposición 1966 | GAUR KONSTELAZIOAK | 2016 está enmarcada dentro de los actos de inauguración de San Sebastián 2016, Capital Europea de la Cultura.*

**Amable Arias, Rafael Ruiz Balerdi, Néstor Basterretxea, Eduardo Chillida, Remigio Mendiburu, Jorge Oteiza, José Antonio Sistiaga y José Luis Zumeta** forman la constelación más importante y renovadora del arte vasco. A mediados de los años sesenta, en un contexto hostil para la libre creación cultural y política a causa de la vigente dictadura franquista, se agruparon bajo la denominación de Gaur y se presentaron con una exposición y un manifiesto en 1966 en la Galería Barandiaran (Donostia / San Sebastián). Se cumplen cincuenta años de aquel acontecimiento cultural y disidente que reunió a artistas con poéticas y elecciones artísticas diversas. Latía también un anhelo de recuperación de una herencia moderna del arte, una Escuela Vasca, que había sido truncada por la guerra civil y la dictadura, y por ello promovieron la creación de otros grupos: Emen / Aquí (Bizkaia), Orain / Ahora (Araba), Danok / Todos (Nafarroa) y Baita / También (Iparralde). Fue un deseo sublimado de una vanguardia artística que tenía en Oteiza y Chillida a sus representantes más reconocidos en el ámbito internacional. Las diferencias en el seno de Gaur y entre los diferentes grupos sobre cómo entender el arte y sus implicaciones con el contexto social y político, condujeron al final de esa aventura colectiva y al cierre de la galería. Quedan sus obras que siguen interpelando poéticamente a nuestra imaginación y sensibilidad.

Al hilo de esta exposición se le quiere rendir un homenaje a **Dionisio Barandiaran** (Ataun, 1927-1979) ya que fue él el mecenas de esta galería que organizó exposiciones de arte compuesto (1965 – 1967). A pesar de su corta trayectoria esta galería fue muy importante en la renovación del arte y cultura del País Vasco: fue la sede del Gupo Gaur y de otros colectivos asociados como Ez Dok Amairu (música popular), Argia (danza) y Jarrai (teatro). Asimismo, programó exposiciones, audiciones y coloquios de poesía y música contemporánea, y otros eventos que tuvieron que sortear la limitaciones de la censura imperante.

En *Kairós* participan ocho artistas —de generaciones posteriores a las de los artistas que participaron en el Grupo Gaur y de realidades nacionales diferentes— **Txomin Badiola, Bojan Fajfric, Goldschmied & Chiari, Iratxe Jaio + Klaas van Gorkum, Eugenio Ortiz, PSJM, Avelino Sala y Azucena Vieites**. Sus obras establecen un diálogo entre sí y, al mismo tiempo, con las obras del contexto de los años sesenta realizadas por los artistas de Gaur.

1966 | 2016: dos contextos socio-históricos, dos constelaciones del arte que proponen nuevas figuras de lo pensable y de lo experimentable.

## \*BIOGRAFÍAS BREVES

### Dionisio Barandiaran

Ataun, 1927 – Donostia, 1979

Nacido en Ataun, al iniciarse la guerra civil se traslada a residir en casa de unos familiares en la plaza Easo de la capital donostiarra. En su juventud tuvo que conciliar trabajo en una cafetería y estudios en la Escuela de Artes y Oficios. Posteriormente, se dedicó a trabajos en el sector de la hostelería y de la construcción. Construyó el Hotel Euomar en Zarautz donde abrió una escuela de hostelería que sería pionera en Euskadi. En el Euomar se celebraron diversos eventos culturales. En uno de esos eventos conoció a Sistiaga y a Amable y surgió la idea de abrir una nueva galería.

Barandiaran, de profundas convicciones cristianas y compromiso nacionalista, fue un gran emprendedor en sus actividades empresariales y en el ámbito de la cultura además de la galería abrió un cine. No pudo concluir la escritura de sus memorias, debido a su prematuro fallecimiento cuando contaba con 52 años. Fueron editadas bajo el título de *Azarolako Dunixi* en el año 2009.



La figura de Dionisio Barandiaran merece un reconocimiento público por su generoso y valiente mecenazgo en el impulso de la Galería que llevó su nombre y denominada por Oteiza como Productora de exposiciones de arte compuesto. A pesar de su corta trayectoria (de noviembre de 1965 a diciembre de 1967) esta galería fue un espacio de encuentro y diálogo entre las artes y, también, entre una cultura de vanguardia vinculada al arte, la poesía y la música, y otras manifestaciones de una cultura popular vasquista que emergió en un contexto franquista en el que las libertades y el euskara estaban prohibidas.

## Galería Barandiaran

1965-1067

Productora de exposiciones de arte compuesto

Situada en la calle Bengoechea, 4 Donostia / San Sebastián, esta galería fue la sede del Gupo Gaur y de otros colectivos asociados como Ez Dok Amairu (música popular), Argia (danza) y Jarrai (teatro), y programó exposiciones, audiciones y coloquios de poesía y música contemporánea, y otros eventos que tuvieron que sortear la limitaciones de la censura imperante. El poeta experimental Julio Campal fue su primer director y posteriormente fue reemplazado por Santi Díaz. El Grupo Gaur se presentó con una exposición y un catálogo que incluía un manifiesto que promovía la convergencia de artistas en defensa de su libertad creativa y de sus proyectos. Las dificultades de financiación, las diferencias sobre el devenir de esos grupos asociados y la apertura de las actividades a otros pueblos, centros de estudio y trabajo suscitarían diferencias y controversias que, junto a las confrontaciones que surgieron entre las personas adscritas a diversas organizaciones y militancias antifranquistas, condujeron al fin de ese proyecto innovador.

## Amable Arias

Bembibre, 1927 - San Sebastián, 1984

Este artista y poeta que simpatizaba con el marxismo crítico escribió en 1969: «El arte está pues a favor de algo y en contra de algo. Aún en el menos realista hay un escoger. Una forma de escogerse en el mundo. (...) El arte es pues como la ciencia, como la filosofía, como la teoría crítica. Busca lo mismo con materiales diferentes». Cultivó la heterodoxia artística mediante un universo visual y poético para transitar entre lo real y lo imaginario. Con la ironía y la sátira como recursos para litigar con el mundo y los deseos.

## Rafael Ruiz Balerdi

Donostia, 1934 - Altea, 1992

Tras un viaje a París en 1956 su pintura se orienta hacia un informalismo abstracto que trama mediante una acción gestual que repite de modo a la vez compulsivo y racional. Escribió: «hay que aprender a vivir la repetición», y diríase que ese gesto crea formas nuevas, desde su prodigioso dominio del dibujo y del uso del color, cristaliza en formas orgánicas y geológicas que configuran paisajes imaginarios evocados desde experiencias reales o del hacer imaginario. A partir de 1977 inicia sus formidables series de ceras.

## Néstor Basterretxea

Bermeo, 1924- Hondarribia, 2014

